

euskaldunon konpartseren aldizkaia

Gora Marijaia!!!



Gora Euskal Herri Euskalduna!!!

Aste Nagusiaren balantzea, 4. eta 5. orrialdetan

gainera...

3 konpartsero eguna

2 san ferminak

6 ofizialtasuna???

7 mendeku txikiak

8 deialdiak!!!



"Iruñakoak oso kaskauta dabil tza"

Goizeko 10ak – GARELLANO
Ene! hortik datoz, ezin da izan, betiko zoroak! Pittu, Kanpi, Peru, Mikel, Marta, Idoia, Pirriki, Txomin, Aintzane eta, berri bat: Iker. Bus geltokia pil pilean dago, jendez gainezka, baina erraza da desberdintzea morez jantzitako koadrila bat.

Goizeko 12ak – IRUÑAKO BUS GELTOKIA
"Tiembla Iruña, tiembla Iruña,..." Badator barraskiloa....Litroak motxilatik atera, Marijaia baino ez da faltatzen hemen! Baina aurten ezinezkoa izan da ekartzea. Eta horrela kontatzen diogu guregana elkarriketa bat egitera aurreratu zaigun tipoari. Noski! Kanpi bere diskurtso "antiBarcina", "antiELCORREOESPAÑOL" eta "antitodo" botatzen dion bitartean.

Goizeko 13ak – IRUÑAZAHAR TABERNA
Badator Fermin (peñen kordinatzailea) eta diplomatiko trebeen antzera, derrigorrezko formalismoak betetzen hasten gara (aurkezpenak, pegatiñen trukaketa,...) Peñak ez datoz gurekin, bere bolara doaz, ba beno, gu poteoari ekin diogu.

Eguerdiko hirurak – IRUÑAKO TXIS USAIÑEKO BAZTER HANDI BAT: TXIS-JANTOKIA
Mahaia prest, baina inork ez digu esaten non jesarri behar garen. Denbora badoa aurrera, mozkorra, deabruak ekarri digun eguzkia, gose...Basetxeok ere ez dute inoiz hain txarto pasatu. Baina, ardo botila batzuk, eta 7 euroko sagardo botila batek desesperaziñotik ateratzen gaitu.

Eguerdiko ditxosozko ordua! - TXIS-JANTOKIAN
Kubiertoak serbiletekin heldu behar ditugu eskuak ez erretzeko: Eguzki madarikatua! Barraskiloxok zerbait entzun omen du *Joder, que se callen de una puta vez, de donde son esos pesaus*!! Baina abesten jarraitzen dugu. Holako batean, agure koadrila bat mahaitik altxatzen da. Baionako koralako abeslariak! Ederto, gure ahotz polit eta finak kakaren parean utzi dute. Batzuk, berriz, hor jarraitu zuten jo ta ke: "Euskalherriko semiak gera..." (ezta

Bigarren poteoa....????? – IRUÑA
Trikitilari batzuen atzean, edo aurrean.... Gu haiekin edo haiek gurekin... Ez dakigu

nora goazen, ezta nondik gatozen... txotx!!! Beste sagardo botila bat!!! Bat-batean ez dakigu nola baina bakarrik utzi gaituzte, kasualitatea izango litzateke, baina morez jantzitako guztiok gaude elkarrekin. OOOaaaaaa!! Zelako modorria! Goazen

Arratsaldeko 7rak – HORMA BATEN KONTRAN
"San Fermiñetan jendeak lotsa galtzen du barraskilotxo, ez haserretu!" Koittaduak, formak gorde nahian dabilenez, oso txarto hartu du gu kale batean, hormaren kontra jarrita, lotan paratzea. Beno, lotan ahal dutenok, euli astun batzuk ez digute uzten (ezta Kanpi?). Bi ordu pasata alboko dendako patata eta pipa poltsa guztiak agortu ditugu, hala ere, gosez jarraitzen dugu eta bokata baten bila abiatzen gara.

Bederatziak inguru – ULTRAMARINOSEAN
Botea geratzen zenez, bokatez gain beste litro batzuk erosi ditugu, landa batean lasai edateko. Poteoan ibiltzea Iruñako jaietan ez da batere merkea eta. Eta hantxe botata ekin diogu gure jada hirugarren mozkorraldiari. Su ikusgarriak gure gainean, lagunak aurrean eta sagardoa barruan. Hau da hau bizitza zoragarria!


Nork daki zer ordu den! SAN FERMIÑAK EDO OSPATZEN ARI GARELAKOAN GAUDE BAINA EZ GAUDE ZIUR.

Zerbait faltan dugu....:Txosnak! Aurten, gaztetzak apaindutako lekutxo batean daude sartuta. Iazko Txosna-mugikorrek ez zuen arrakasta handirik izan, batez ere "espontaneo" batzuk, mikrofonoa hartuta, astokeriak esatera igotzen zirelako (ezta Pittu?) Goazen ba!.....Uiuiui..."Zer da hori?", "Gaztetzeta", "ke ba, hori antzinako Txitxaroren modukoren bat da "Baina, baina zer gazteri mota da hau?" "Zelako musika nazkagarria!" Bat-batean doinu ezagun bat erakartzen du: "Abuztuan Bilbon, zahar eta gazte..."Marijaia ezin izan genuen gurekin eraman, ez, baina kristo guztia gogoratu zen berataz gau horretan, CDa rayauta amaituko zen,

Putxa ideiarik ez noiz - PUTXA IDEARIK EZ NON
Gogoratzen dudun azkenengoa zapatila bat da. Bai. Zapatila zikin eta handi bat. Txomin eta biok lo omen geunden bus geltokiaren aurrean, kalean, eta zapatila horri ezker jakin genuen geltokiaren pertsianak zabaltzen zeudela. Ostikada ederra izan zen, bai, baina eskerrak zapaldu gintuela, bestela hor izango ginatke asteburu osoan lotan.



konpartseroren eguna



MOZKOR-ERO EGUNA 2003

Urtero egiten den bezala, aurten ere, uztailaren 19an, KONPARTSERO EGUNA ospatu genuen. Konpartsa guztiak elkartzeko eta Aste Nagusirako indarrak hartzeko ekimen honek arrakasta handia eduki zuen. Eta nola ez, jende gehien erakarri zuen konpartsa geurea izan zen. Antolatzaileek herri bazkaria, paella erraldoi bat, prestatu zuten, eta dohain banatu zieten bilbotarrei. Jende mordoak hurbildu zen. Bukaera, betiko moduan, poteo Alde Zaharrean eta amaitzeko Santutxuko jaiak.

Prestaketak goiz-goizean hasi ziren. Goizeko 9ak inguruan, konpartsa sukaldari onenak (Idoia eta Txomin) eta gure azken fitxajea, ekialdekoa, (Gakuji) geratu ziren Bilboko "Etxetxua" enparantzan. Plana: paella baten osagaiak, eta zailena, konpartsakide mozkortientzat alkohol

Bi ordu erosketak egiten pasatuta, Bilboko Areatzara heldu ziren. Garagardoa dohainik banatzen zuten; eta zer esanik ez, konpartsakide batzuk gure lekua zaindu beharrean, txosnako barrari kateatuta zeuden. Ezta, Pittu,

Paellaren prestaketa hasi zen, eta beti bezala, ideiarik ez (Gabi ez zegoen). Beno, aurten Idoiak errezeta ikasita zeukan, baina, ereintz toketori, Argiñanok perrexilarekin egiten duen bezala, ez dakit nik ondu onartua izan zen. Emaizta: Bi sasi-paella, eta Gakujiaren arroz exotikoa (nire ustez arrakasta gehien eduki zuena). Dena dela, ez zen ezer soberan geratu. Gozogozi zegoen, bestela galdetu Mamikiren txakurrari, gizajo, beraren jabeak barazkijaleak eta berak gure paella jan behar.

Bazkaldu ostean, kopak eta kontzertua Gasteizko KONTRAIRO taldearekin. Aurten ez zegoen "La fura del

Baus"-en trakarik, baina gure ume txikia, Kanpi, oso ondo prestatuta etorri zen, ur-pistola eta puxikekin. Guda hasi zen, eta guztiok busti-bustita bukatu ginen. Takolok, ETBko aurkezleak, Gakuji ospetsua elkarrizketatu zuen, eta bustita

Kontzertua hasi baino lehen, eguneko momentu hunkigarriena ailegatu zen eszenatokira. Helburua: Pakoren, gure konpartsakidearen anaiari, "Kirori" urtebetetzea zoriontea izan zen. "Zorionak Kiro" zioen pankarta erraldoi baten atzean paratu ginen, eta argazkia atera.

Argazkia egin ondoren, kontzertua hasi zen. Ondo pasatu genuen dantzatzen eta edaten, batzuek edan baino egin ez bazuten ere. Eta ohitura betetzeko, Hau Pittu Hau, alkohol gehiago ekarri zuena

Kontzertu amaitu zen, eta konpartsero guztiok alde zaharrera abiatu ginen, gu perolo eta guzti (lapiko bat kalimotxoz beteta). Giro ezinhobea sortu zen, eta ez genuen utzi taberna bat ere ez bisitatu gabe.

"Trikipotekalejira" hau dela kausa, konpartsero batzuk guztiz mozkortuta bukatu ziren. Alkoholaren indizea jaisteko eta berriro igotzeko, Santutxuko jaietara joan ginen, lehenago taberna batera afaltzera eta gero txosnetara gauari

Txosnetako berbenan, nola ez, "nota" eman genuen berriro, eta gure konpartsakide onenak: KANPI, ASTRABU eta TXOMIN, eszenatokira igo ziren giroa berotzeko asmoz.

Handik aurrera sakabanaketa eta desfasea...

Hurrengo Mozkor-ero egunera arte, lagun!!!!!!

**Garagardoa dohainik
banatzen zuten;
eta konpartsakide
batzuk gure lekua
zaindu beharrean,
txosnako barrari
kateatuta zeuden.**





Hau Pittu Hau Bilboko Aste Nagusian antolatutako Argazki Lehiaketaren Gai Librearen lehen saria.

Aste Nagusia aurrera

Beste urte bat Mari Jaia Bilbon jaun eta jabe izan zen. Aurten Aste Nagusiak 25 urte betetzen zituen, eta ospatzeko edizioa izan beharrean, hainbat hodei beltzek ilundu zuten Arenaleko zerua.

Eskerrak konpartsek edozein eguraldiari aurre egiteko ohitura dutela, eta bai aparkalekuko lanei, bai kanpoko erasoari aurre egin genien.

Jarraian pasa den Aste Nagusiaren kronika umorez eta apur bat oxtia txarrez egina dago; ezin da bestela izan, bizi dugun ADIERAZPEN ASKATASUNezko une hauetan ikasi behar baitugu lerro artean idazten eta irakurtzen. Honelako garaiak ditugu Euskal Herrian.

Beraz, norbaiti "GUAPO" edo "VERDADOSO" esaten badiote, hasi buruari bueltak ematen, agian guztiz kontrakoa esan baitiote.

Aste Nagusiaren kronika hasteko 2003.eko maiatzean kokatuko gara. Bai, badakit txupinazoa abuztuan dela, baina Aste Nagusia benetan askoz lehenago hasten da. Bilboko konpartsek, udaletxekoekin HARREMAN IKARAGARRI ONA dugunez, Udaletxeak jai eremu berria ezartzen du GURE PROPOSAMEN GUZTIAK KONTUTAN HARTUTA. Gure udaleko LANGILEi eta politiko MIRAGARRI eta ZINTZOei esker, Arenal erdia galtzen da jaietarako, kontzertuak Zorrozaurren kokatzen dituzte eta tranbia milaka pertsonen artean ibiltzen da Aste Nagusiaren bitartean. Zer egingo luke Aste Nagusiak honelako jenderik

Gainera konpartsen artean ARMONIA ETA ELKARULERTZE izugarriari esker, denontzako leku aproposa bilatu genuen.

Arazoei aurre eginez, eta bilera GUTXI batzuk egin ostean, abuztua heldu zen eta urtero moduan Hau Pittu Hau Arenalean batu zen txosna muntatzeko.

Zergatik zintzilikatzen dira antzar batetik Lekitton? Zergatik askatzen dituzte zezenak kaletik Iruñan? Zergatik bukatzen gara txosnaren muntaian ondoko konpartsekin beti haserre? Ez dago azalpenik, ohitura guzti hauek hain zaharrak dira. Imajinatu, Santimamiñeko leizetan badago marrazki bat, non Bilboko bi konpartsero elkarri oihuka agertzen diren, erdi muntatuta dagoen txosna baten aurrean.

Txupinazoaren ordua eta... eurria!!! Eskerrak bilbotarrak garela. Kanpotik bustita? ba barrutik ere, ze oxtias!!! Hor ibili ginen Arriaga aurrean txintxo, txintxo, DONOSTIARREN ANTZERA,.....kantinerio



dale fuego, lara, larala, larala, lala. Jakingo duzuen moduan, txupinazoaren eguna (eta batez ere gaua) ASPERGARRIA eta LASAIA izaten da. Jendea hain aspertuta ibili zen, ze konpartsa osoa etxean gelditu

Zergatik bukatzen gara txosnaren muntaian ondoko konpartsaekin beti haserre?

Astelehena, konpartsa baten baxkaria. Badakizue, betiko ROLLOA, baxkaria, konpartsa sariak, Play Back, eta abar. Aurten, Hemendik at-en txano gorritsuren kantarekin otso-gizonaren istorioa ez dela mitoa jakin izan genuen. Be bai Delirium tremens eta Heroes del silencio-ren arteko nahasketa bat egin ziguten, azken hau hain sakona eta kontzeptuala izan zen, ze Gugenheim-netik deitu dituzte berriro play back-a han egiteko. Konpartsaekin ere omendu zen euskararen alde egindako lana eskertzeko. Arratsaldean Bertso trikimozkorra. Gero gauean, ENE BADA-ren kontzertua, eta gero... KICK BOXING eta LARRIALDIAK telesailaren antzezpau bat.

Astearteaz eta Asteazkenaz ze nahi duzue kontatzea. Gure konpartsaekin

baten taldeari esker, 83ko uholdeak errepikatzeotan egon ziren (Azken berria:

R13-k laster Etiopiatik bira bat egingo du Intermonen eskutik). Beste batzuei, militantziaren mugak gaudituta, kobratu nahi zieten baxkariak banandu ostean soberan zegoena baxkaltzeagatik. Euskal

Herriko EZKERTIAR batzuk nahiko ohitura ARISTOKRATAK omen dituzte; kalean baxkaldu bai, baina kamarero eta guzti. Eskerrak pregoilari saltseroa hor zegoela, klaseen arteko ezberdintasunekin

Osteguna, ze arraroa, baina gure betiko LAGUNAK konpartsaekin gogoratu ziren, eta Aste Nagusia ez zuten huts egin nahi izan. Azkeneko Aste Nagusietan nahiko partehartze txikia izan zutenaz, (jada ez baitira antolatzen OSTIRAL GOIZEKO GAUPASA horiek) aurten esan dute: GUK ERE JAIETAN PARTE HARTU NAHI DUGU. Mozorroa hartu eta BIDEO –

Aurten ere desmuntatzean zauritu bat eduki genuen.

ARGAZKI TXAPELKETA antolatzeaz gain, bueltatxo bat eman zuten txosnaz txosna GIROA SORTZEN. Uste dut Santimamiñeko leize horietan ere beraiek agertzen direla marrazkietan.

GURE LAGUNEN bisitaren ostean, eta IKUSITA GURE ETORKIZUNA OPAROA DELA, POSAREZ POSEZ GELDITU GINEN. Dena den, aste bukaerari ekin genion. Badakizue Aste Nagusia bukatzen da, eta konpartsaen arteko lehiak eta katxondeoa gora doala. Jaiaz betetako ostiral eta larunbat baten ostean, eta txantxaz beterikoa ere (hemendik agur bero bat Satorrak konpartsaekin). Igandea heldu zen eta berarekin Aste Nagusiaren


bukaera. Mari Jaia erre eta datorren urtera arte esan ostean (gure LAGUNEN baimenaz, noski), txosna desmuntatzeari ekin genion.

Ondo dakizuenaz, Aste Nagusia ez da bukatzen txosna desmuntatu eta konpartsaekin ere ospitalea bisitatu arte. Beraz, aurten ere desmuntatzean zauritu bat eduki genuen.

Badakizue, ohiturak, ohiturak dira.



Hau Pittu Hau Bilboko Aste Nagusian antolatutako Argazki Lehiaketaren Artearen lehen saria.



Gure aurtengo dekorazioak polemika sortu zuen.

Hona hemen Ofizialtasunaren inguruan hausnarketa txiki bat.

Ofizialtasuna... Non?

Ofizialtasuna hitza, benetan hitz panpoxoa da, baina ze ezkututzen da hitz honen atzean. Zerbait ofiziala dela esaten dugunean, zerbait legala denaren ideia etortzen zaigu burura, baina hizkuntza batez hari garenean gauza gehiagoetaz ari gara dudarik gabe. Hizkuntza bat ofiziala izatea ez da bakarrik status legal bat duela esatea, baizik eta bere erabilpena era normalizatu baten egiten dela, eta horretaz gain hizkuntza hori erabiltzen dituzten gizabanakoen

hizkuntza eskubideak bermatuta daudela, hau da, edonon eta edonoz hizkuntza hori erabili dezaketela: lagunekin, medikuan, epailearen aurrean, administrazioko bentanilen atzean dagoen funtzionario zatar horren aurrean...

Bilboko jaietan, konpartsa euskaltzalea garen heinean, euskararen ofizialtasuna eskatzen genuen, baina egokia ahal zen lema hori? Egun horietan kritikak ugariak izan ziren, eta nahiz eta batzuk ez

ulertu, guztiz zentzuzkoak ziren. Inork ez du ukatzen euskarak ofizialtasuna behar duela Nafarroa, Zuberoa eta Lapurdin, baina ze gertatzen da Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabarekin? Aurretik aipatu bezala ofizialtasunak hizkuntza eskubideen bermea esan nahi du, eta hori hiru lurralde hauetan zientzia fikziozko kontua izaten jarraitzen duen bitartean, berau ez da ofiziala. Argi dago, beraz, hanka sartu genuela, ea hurrengoan punteria hobea



sexu-lapikoa

Ilargiaren postura

Mutila eserita egonik, neska bere hankak mutilaren alboetatik pasatuko ditu, eta etzanda geratuko da. Bikotea hurbildu daiteke nahi beste. Horrela estimulazioa pelbisaren aldibereko inpultsoei esker lortuko da.

Onena:

Postura originala da, eta sartze sakona ahalbidetzen du.

Mutilaren pelbisaren hezurriaren esker klitoriaren estimulazio ona lortzen da.

Txarrena:

Mutilaren partetik trebetasun handia exijitzen du.



KARNABALAK

Abuztutik Ilbeltzera
Zubia luze ote da,
Aste Nagusi hil zan unetik
Karnabaletara?
Ogi hutsa eta ura
Kondenatuen gazura
Jai barik gabiz, ez al da egi?,
Presoen modura

Hotza itzel izan arren
Nahiz Mari Jaia hor ez den,
Ihauteritan sentitzen dugu
Arenala hurren
Datozela ja mekaguen!
Guztiok alda gaitezen
Kritika eta askatasuna
Nagusitu daiten

(Gabi)

KAUDILLO

Hemen dau MariJaia
guztioi galdetzen:
"non dau gure kaudillo
nago negar eiten",
gure kanpillo barik
txupina ez da hasten,
kanpillo argentinan dago
dago txortan eiten.

(Txomin)

SANTUTXU

Hementxe gaude gure Santutxun
eguna ondo bukatzeko,
zergatik gure farra guztiak
mozkorak batzuentzako,
Kanpi ta Astrabu, Astrabu ta Kanpi
giroa ondo berotzeko,
konpartsero egun honetan
kontzertua hobetzeko,
igoko dira gure lagunak
piska bat nota emoteko. (BIS)

(Txomin)

Pittu: non ezagutu duzu beste
Txanogorritxu bat?

Joder Jimmy zelako Hau..Hau polita
kurratu zaren!!


Irantzu, zure menu begetarianoz
nazkaturik gaude!!!!

Peru, noiz idatziko duzu bertsoa
behingoz?

Pittu, ZOKETE!!! Ados "s"-z idazten
da!!!!

Iñiguito, Kolash kalean geratuko
garete?

mendeku txiki!!!





TOMAS DEUNA



Badator Tomas Deuna, eta urtero bezala Konpartsen koordinakundeak txosna jarriko du San Nikolas elizaren parean. Aurten, bi barra eta eszenatokia egongo da. Animatu eta ETORRI!!!!



EGITARAU OFIZIALA



- 8:00** - Karrantzako 40 putxerak hasiko dira indabak sukaldatzen.
- 10:00** – 1. Barra zabaltzen da.
- 11:30** - Txosnan Orozkoko 200 kilo txorizo banatuko dira debalde pintxotan.
- 12:00** - Eskenatokian txalaparta ikastaroa Kepa Junkerarekin. 6 txalaparta aldi berean.
- 13:00** - Eskenatokian bertsolariak: Sebastián Lizaso, Andoni Egaña eta Arkaitz Estiballes.
- 13:30** - Esperantzako frontoian bazkariaren 1. txanda: putxeratan eginiko indabak sakramentuekin.
- 14:00** – 2. Barra zabaltzen da.
- 14:00** - Eskenatokian Bilboko gaiteroak.
- 15:30** - Esperantzako frontoian bazkariaren 2. txanda: putxeratan eginiko indabak sakramentuekin.
- 18:00** - Eskenatokian erromeria *Aritzgoiti* taldearekin 20:30-ak arte.
- 21:30** - Eskenatokian kontzertua: *MCD* eta *Gatillazo* (Evaristoren talde berriaren aurkezpena, *La Polla* desagertu eta gero.
- 00:30** - Amaiera.



HAU PITTU HAU-ko EGITARAU OFIZIALA



- 11:30** - Madariaga Tabernan - HAU PITTU HAU-ko goizeko poteoa
- 13:00** - Babarrunak jateko elkartzepuntua: Txosna
- 17:00-tik 20:00-ra arte** - Txanda txosnan (9 konpartsakide behar dira)
- 20:30** - Zurra triki kalejira (Txosnatik aterata)

